

nean itandu konfesore edo beste gizon on ta aitu bateri.

*Boto eguna.*

Gomutau euzkeldunak gareala, euzkerea nortzuk maite daben, bertako semeak bertako zeregin guztietan nortzuk ikusi nai dituan, idazkari ta empleo guztietan, eta nok ipiñi euskun soldadu yoatea ta abar. Oneik gogoan erabili ta gero, zeure botoa emon eflaren alde zintzo yokatzen dabenai.

TRAÑA

**Eloño.**

*Balasi deunaren jaya.*

Notiñ asko ixen ziran «San Blas» jayetari Abadiño'ra jua ziranak. Guztijak txadonara eldu ba ziran, Balasi Deuna etzan esafe izango.

*Ezblara.*

«San Blas txiki» egunian ezbiar bat gertatu zan, Apatamonasterijo eta Elofijo bifartian. Untzeta'tar Joseba Mirena'k, bixkofegi joyalako edo bere motofaren jabetasuna galdu ta bitxabel ertzian eguan ari-egur bat jo eban. Bertatik igaro ziran elofijar batzubenek jaso eban, baña, oneratu orduko, zoritxsef, gorpua zan.

Bere obratze ta il-elizkizunetara jua ziranak eskuak ixan ziran.

Bere sendikueri laguntzen dautset atsekabeen.

*Erljotsa.*

Ikurton Deunak artuta gero, il zan Lazp'ur'dar Koldobike (G. B.) Bere senar ta sendijari euren galtze atzekabetsuban laguntzen dautset.

*Agate Deuna.*

Urtero lez, gure Batzoki'ko bazkide aldra bat txaidetik-txaide ibili da Agate Deuna'ren abestijak abestuten. Jakin dodan lez itxuran batu dabe.

Aufera mutilak, eta ez egundo itxi gure ofura zefak.

*Jayotza.*

Lafamendi'tar Basilio ta Lizaur'dar Bizenta'k ume bat ixan dabe. Ugutzakeran, M. Karmen ixen politak ipiñi eutsezan. Zorijonak.

*Itzaldija.*

Igaro dan igandian Euzko-Alderdi-Jeltzallak atonduta E. I. B.'ko antzokijian itzaldi eder bi egin euskubezen, Bernedo'tar Pelayo ta Kazana'tar J. Mirena'k. Euren agefaldija Zenitagoya'tar Eli'k egin eban. Edero itz egin eban, eta bertaratu

**Begira ondo nortzuk izan diran efa diran Eleizearen aldezerik egitezkoenak.**  
**Begira gure eflaren eskubideak, gure olfura onak, gure izkuntza gaxoa nok aldezen daben.**  
**Begira zeintzuk dauklen eralben efa indarik geyen Eleizearen arerlo amofatuak aspiratzeko.**  
**Efa zalantzaz barik eural autarkia emon.**

ziran guztijak oso pozik urten eban. Zorijonak Euzko-Alderdi-Jeltzallari.  
 KORDARA

**Mañari.**

Geure autarkijak edo botuak emoteko egun ori lastertxo eldu biar yaku ba... Gak, geure autarki edo botua, Galastegi'tar Alexander izlari trebiak emen egin eban itzaldijan esan eban lez, «Jaungoikua ta Euzkadi» ganako mañasunez geure bijotzak beteta doguzala Jel Alderdi'ko diputadugayari emongo dautsagu. Jel-Alderdiak, ofetarako aurkeztu dauzan eldungayak, gixon zintzuak eta Jainkotijak dirala ikusi dogulako. Beraz, batzuen esamesari jaramon barik, geure autarkija gixon zintzo ofentzat.

*Emen be ibili ziran...*

Agate deunaren ixenian «Santa Agueda batzelak» emen be etxerik-etxe abestuten ibili ziran. Aldra bi ibili ziran. Eurak baña, «Bakian gabiz bakian, Jaun zerukuaren legian» eflime abestuten eban afen, alkaferi pautzeko galantak eta emonaz, alako bake-utsez eziran ibili... Au edo ori, beti yauk zegozer egon be ta...

*Azkari bat.*

Igande afatsalde, Subinas'tar Jone emakume zintzuak, bere jayotegunaren urteufena zala-ta, azkari eder bat emon euskun. Eta, opaldu euskun azkari gozua, olakuetan oi dan lez, umore onez jan gendun. Zorijonak eta esketik-asko. Oin, urte batek beste bat ekafi dagijala ta kitu...

*Ixurtza'n.*

Igaroriko igandez Ixurtza'ko batzokijian egin ziran berbaldi berberko-

yak entzun genduzan. Lenengo, «Gogora» aberkide zintzuak berba egin eban, eta beti lez ederto. Gero bafiz, Galastegi'tar Alexander izlari trebiak berbaldi edef-edefa egin eban. ¡Axe bai zala ondo berba egitia...!

MAÑARIKO

**Barinaga.**

*Mofojak.*

Igazi dan astelen afatsaldian beñolako ton...fia, txiri...kume eta abar potu bete engrudo, Artibaiko kañu zuluak egiñekua edo ingi (paper) zar pilo bat irañe eta guzufe baño besterik eztabenak, eskuetan dituela emen ixan doguz. Eta begiratu, orain etxerik entzutesuenak polito enpapelauta dagozala. ¡Ori dok, zuelako mofojak zabalkunde itzala egiten yuek!

*Gudaritzara.*

Emengo mutil gaste batzuk gudaritzara jua yakuz. Batzuk Melilara eta beste batzuk Gastela aldera, jau tamalal gudaritza au nok ekafi euskun? Orain 97 urte eta 66 urte inguru fuero-zafak kendu euskuezan zuri-baltzak biar etzan matxiñada eta guda eginda eta oin bustartuta Euzko-erijan aurka ostabe yatorkez. Ia ba mutilak osasuna ondo zainduta ainbat ariñen etxeratuko al zarie.

*Kurutze eske.*

Orain ikastolarako kurutze eske yatorkez; baña ba nortzuk dira ofek? Lentxuago aintzat kurutzarik artu nai ezebenak. Len nai ezebenak gero be naike ete dau? Ofekin bildur izateko da oba jaramonik egin ez eta Euzko-Aldun-Jeltzallari bape

kezka barik botua emon. Kitu. Ia ba, iñor be etxian geratu barik, bijar botua emotera azkar.

TXEPETX ORDE

**Natxitua.**

*Auteskundiak.*

Auteskunde eguna eldu yaku, ezta dabiltz alde guztijetakuak boto bile; señorito dotoriak ikusten doguz lupetza bildur barik geure basefijetan, belbilak ara ta ona tximista baizen bizkor, itz samufak, agintzari ugarijak eta min labanak ugari, eta ortik igarten dogu geure botuak asko balio dabela eta orain ondo be ondo erabagi biar dogu nori emon biar dautsagun. Zur Natxitutafak, ba zeure botua artu ezkeru amaitu dira agintzarijak eta zugaz eta nigaz ezta iñor gomutauko, dan danak gugaz aztuko dira eta agintzarijak aixiak eruango ditu.

Iru alderdikuak dira botodunak. Batzuek ezkefak, Jaungoiko eta Eleizearen arerijak, geure erlejiñuaren arerijo amofatuak; au jakitia naike da gu euren aurka juateko, katoliko ixena daukagunok beintzat.

Bigafenak karlatafak dira eta emen obeto oldoztu biar dogu ba eurak be katolikuak dirala diñue; baña katoliko onek Madrileru begira dagoz, Españar amofatuak dira, beraz euzkotafen arerijo egiten yakuz. Eurak eztabe Euzkadi'rik aitatu gura, España gora eta España bera geure Euzko-erijau eztabe ezautu gura, beraz ezkaituez gu maite, geure botuak baño; eurak gixon andi egiteko eta eurai gogora yatorkenian geure basefijetatik jaurtiteko, beste toki batzuetan egin daben lez.

Irugafenak Euzko Abertzallak dira ta ixen onek bakarik asko dirausku; onek eztautse Españari begiratuten Euzkadi'ri baño, onek eztabe Españar'entzat ezer eskatzen Euzkadi'rentzat baño. Euzkotafak eta kistar zintzuak dira, geuk letxe oldoztuten dabe, beraz geutafak dira; maite dabez geure lufak, maite geure oiturak eta maite geu anayak garialak. Beraz oso-osuan eurai geure botua emon bifan gagoz eta bestela txarto egingo dogu eta alan be oba balitzakez geu lez basefifatak, baña naike, da ixatia katolikua eta euzkelduna, Geure anaien alde geure botua. Gora Euzko Aldunak.

KURUTZE GANE

**Lexona.**

*Itzaldijak.*

Igazi dan igandean eta astelenean egin ziran Elexaldeko pelota tokijan eta Lamiako'ko Euzko-Batzokijian auteskunde arazotako itzaldijak. Lenengoan Gabilondo'tar Julene, «Mañe», eta Lexarzegi'tar Lonarta itzalarriak izanik, eta bigafenian Orueta'tar Endika jauna.

Itzaldi edefak benetan, itzlarri eta Alderdiaren kistartasuna zalatuten dala. Baita egi andijak bere entzun genduzan eta jakin ez doguzan gauza asko jakinarazo deuskubez.

Onek itzaldijok dirala bide eta ganera geure arerijoren egitaraba ikusita, esan geike Uskurtza eta Abertzaletasuna ixango dirala txapel-dun, baña Uskurtza benetan maite dabenak, ez guzufagaz agora ataritzen dabenak.

Gaur gogo lar bere eztoz eta ganera astia bere gitxi, ufengoan ikusiko dogu geitxubago esan ei bado-gu. Agur.

EUZKELTZALE

**Gernika-Luno.**

*Jayotza.*

Alegria'tar Pantzezka (osagile) eta Afospide'tar Miren Itziar senar-emastik, Jaunak emon da, euren mañasuneko lenengoko landaratxua ixan dabe. Ugutzan Miren Itziar ixen begikua ezafi dautse.

Zorijonak, eta euzkotar emakume zintzo bat ixan deifela.—¡Zure ardurapian dago ori, Itziar—!

Baita adizkide dogun Elgezabal'tar Paul eta Gometza'tar Batirtze (Beatriz)'ek be, beste alaba bategaz euren sendia geitu dabe.

Zorijonak.

«Autarki edo botoa saltzea, arimea, Aberria ta Erlejiñoa saltzea da». (Torras eta Bages, Vich'eko Gotzainak).

**Euzko-bidaztija**

(Atal bateko idantzeki aberkoya)

**OGONOPE'k atonduta**

(Jafakuna)

Santolaritzat ezegon ingirutan areri irebaztekorik... ¡Juan-Anton'ek jaurtiten eban santzuak...! Eformeriren batetik etorten gintzanian, jarek botaten eban botateko santzuak...! ¡Ai gure gaste-aruko egun zorijontsuak!! ¡Nok euki leikezan aldi atako urtiak...! Baña igaro ziran... (itun-triste) Iñoz geyago ez etorteko atan-be! ¡Ai ze zorijontsu dira zartziak gomutaten eziran gaurko gastiak...!! Zorijonekuak dira benetan geure Txomin eta Pantxike bijotzekuak...! ¡Ze pozez lortuko dabe laster euren biximodu bafi estitsu, ta atsegintsuba...! Euren ama Kospa'k, Jaungoikuak gura badau, lagunduko dautse... bai... Kontzeju on batzuk biar badabez, zuzendu be, ama bat ofetarako dalako. Mundu onetako bixitza labur-be, labur da. Batzuk ondo nasai ta atsegintsu bixi dira, beste batzuk atsekabez beterik bixi badira be. Baña gustijari elduten yake, uste baño len, geuri eldu yakun zartzia... Zartza onetan geure semetxuak emongo dauskuben kontzuelu eta poztasan itxaropenian gagoz. Baña biar bada euren biar-ixenian. ¡Atzo geu giñan eurentzako! ¡Gaur eurak dira geuretzat! ¡Jaun-Goikuak gura dabena ixan dedila.

Bera da geure egikera ta ixakera gustijen nagusi. (Amantal puntlogaz begijak zikatuko dauz. Erdiko atetik Pantxike sartungo-da arpegi alai-alaiagaz, eta Kospa triste ikustiaz bera be, triste geratuko-da).

PANTXIKE. —¡Ene! ¡Kospa! Zer diñozu...? (mosu emoten dautso).

KOSPA. —¡Pantxiketxu zara...?

PANTXIKE. —Bai neu naz... eta zergatik negar egiten dozu...?

KOSPA. —¡Enenguan negafez ene alabatxua... Zartziak emoten daustan ifuntasuna baño ezta, ene Pantxiketxu.

PANTXIKE. —¡Zartzia...? ¡Zartziak ikaratuten al zaitu ainbat...? Zeure seme alabatxuak txafak al dira...? ¡Ez algara zeuretzako on-onak...? Ez daustazu ointxe deitu alabatxua...?

KOSPA. —Bai... olantxe deitu dautzut, eta olantxe da, ixan-be, olantxe ene alabatxu kutuna...

PANTXIKE. —¡Zenbat denpora ete-da andra baten ezpan bigunetatik «alabatxu» berba gozua entzun dodala...?

KOSPA. —¡Eta zenbat denpora neuk ¡AMA! deifuten enebale?

KOSPA. —Deitu egiztazu bai neuri... ene Pantxiketxu ain maite deritxazun ¡AMA! ixen gozua... Ain maite ixaten dan Ama'ren gozotasun gitxi artutakua zara benetan ene Pantxiketxu alaba kutuna. Ama... Ama... berari zor dautsagu geure ixate oso-asua. Tamaltasuna, ifuntasuna, tristesi gogofa sartuten-da, neure bijotzian, pentzata, ikusita, seme asko dirala euren amak ezagututen ez dabezanak... ¡Ifuntasuna, penia, emoten daust pentzatiak seme asko dirala euren benetako amak egal batera jaurtiten dabezanak...! Ez bakarik au, onen ganera ondiño, au gitxi balitza, beragaitik txarto

esan eta amufu ta gofoto itzala dautsezanak...! ¡Oba zan seme oneik iñoz jayo ezpaziran...!

¡Ama!, ama... ama kutuna... ¡nun dira seme onak...? Zeuri izan zor gustija eta zeugandik ufunduta... ¡zer dala ta...?

PANTXIKE. —¡Neiku dabe desgrasijarik seme ofek euren benetako ama ez ezagututiaz...! Itxi egitsazue jafaitu dayela bide ofetatik, ikusiko dozu iñozko denporan euren burua ordu lafijetan ikusten badabe zelan bijotz gusti-gustijagaz eta bafu-bafutik deituko dautsen euren benetako Amari.

Bai... ondo gomutako yake zelako kaltiak egin ei eutsezan euren itxaropenian eguan eta iñozkorik geyen eurak biar ebazanian egin eutsen despresijua ama on bat ri... ¡Ama... gose ta egafi gustiyen osakija...! Ama... ama... bere semetxuen martirija, bere semetxuen jopia...! Ama baten bijotza, benetan bijotz maitagarija.

KOSPA. (Ikaratuta) ¡Nun ikasi dozu ofen beste Pantxiketxu...?

PANTXIKE. —Ikastolan ez beintzat, ama... Ikastolan ibilteko aldi gitxi ixan dot-eta. Neure amak ez eustan irakatsi zeuk ondo dakizulez umetxua nintzala ij zalako. ¡Baña... emen bafuan (bijotzari ikututa) «sentiduten» dot abots bat... Eta abots onek diñost ta erakusten daust urte gitxi bafu biar ba-da neu be, ama ixango nazala... Semetxuak eukiko dodazala... Baña eneuke gura seme onek neugaz aztuterik... Zeure semiak zeu maite ixan zaituben antzera gura neuke neu be maite ixan na yen... Eta gero geu zafak garanian ondo zaindu gaiguzala... Txomin'ek eta neuk zeu zainduko zaitugun antzera.

(Dafalke)